



Honekin batera bidaltzen dut beheko gaia jorratzen duen araugintzako ebaluazio txostena, hala jasotzen baitu 6.4 artikuluan (uztailak 3ko 3/2013 Foru Arauaren bidez aldatua) Gipuzkoako lurralde historikoaren erakunde, gobernu eta administrazioari buruzko uztailearen 12ko 6/2005 Foru Arauak:

De conformidad con lo previsto en el artículo 6.4 de la Norma Foral 6/2005 de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, modificado por Norma Foral 3/2013 de 3 de julio, se adjunta informe de evaluación normativa referido a:

2/2022 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergarena.

Norma Foral 2/2022, de 10 de marzo, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones.

**OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUKO FORU DIPUTATUA
EL DIPUTADO FORAL DEL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**



Araugintzako ebaluazio txostena

**2/2022 Foru Araua, martxoaren
10ekoa, Oinordetzen eta
Dohaintzen gaineko Zergarena**

Sarrera

Foru arau hau onartu aurretik, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren eremuan, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga urtarilaren 11ko 3/1990 Foru Arauak arautzen zuen.

Arau horrek aldaketa ugari izan zituen aurrenekoz onetsi zenetik, batzuk garrantzi gutxikoak eta beste batzuk munta handiagokoak.

Azken urteetan, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea onetsi eta indarrean jarri izanak aldaketa handiak ekarri zituen. Ikuspegi aldaketa nabarmena eman zion zergari dagozkion gaietan. Izan ere, aldaketa horien ondorioz, oinordetzen gaineko zergaren zerga egitatea ez da bakarrik gertatzen

Informe de evaluación normativa

**Norma Foral 2/2022, de 10 de
marzo, del Impuesto sobre
Sucesiones y Donaciones**

Introducción

Con anterioridad a la aprobación de esta norma foral, el impuesto sobre sucesiones y donaciones en el ámbito del Territorio Histórico de Gipuzkoa estaba regulado por la Norma Foral 3/1990, de 11 de enero.

Dicha disposición había sufrido numerosas modificaciones desde su inicial aprobación; unas de menor envergadura y otras de mayor importancia.

En los últimos años, la aprobación y entrada en vigor de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco, provocó grandes modificaciones. Le dio un cambio de enfoque en las cuestiones regulatorias del impuesto, en la medida en que el hecho imponible del impuesto sobre sucesiones ya no sólo se



pertsona bat hiltzen denean, baita bizirik dagoenean ere.

Aldaketa horiek guztiak eta dagoeneko denbora asko pasa zenez 3/1990 Foru Araua onetsi zenetik, egoki ikusten zen indarrean zegoen foru arauaren eguneratze orokor bat egitea, eta haren edukia berritzea foru arau berri bat onetsiz.

Eguneratze hori egiteko beste arrazoi bat zen beharrezkoa zela hasieran eman zitzaion ikuspegi arautzailea berritzea; izan ere, gaur egungo irizpide arautzaileek, askoz zehatzagoak eta zabalagoak dira, hasierako onarpenean erabilitakoen aldean, eta erabat gaitzen zuten lehen foru arauan aplikatutakoa.

Gainera, foru arau berri batek beti ahalbidetzen zuen edukiak hobeto sistematizatzea, eta hori ezinezkoa zen ordura arte egin ziren aldaketa partzialekin.

Hori guztia dela eta, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren erregulazio osatuagoa eta sistematizatuagoa onartu zen. Eta, era berean, barruan biltzen ditu, lehen, urriaren 22ko 42/2012 Foru Dekretuaren bidez

produce tras el fallecimiento de una persona sino que también puede producirse en vida de la misma.

Todas esas modificaciones y el largo periodo de tiempo transcurrido desde la aprobación de la Norma Foral 3/1990, aconsejaba una actualización general de la norma foral vigente, y una puesta al día de la misma a través de la aprobación de una nueva norma foral.

Dicha actualización también venía justificada por la necesidad de renovar el enfoque regulador originario de la misma, que había sido superada por los criterios regulatorios actuales, mucho más precisos y amplios que los que eran tenidos en cuenta en el momento de su inicial aprobación.

Además, una nueva norma foral permitía una mejor sistematización de los contenidos de la misma; aspecto que no es posible con las modificaciones parciales que se habían llevado a cabo hasta entonces.

Es por ello que se aprobó una regulación del impuesto sobre sucesiones y donaciones más completa y sistematizada, incluyendo contenidos que anteriormente venían desarrollados reglamentariamente a través



onetsitako Erregelamenduan garatzen ziren zenbait eduki.

Beraz, eta konklusio moduan, esan daiteke foru arau honek, munta handiko aldaketarik ekarri gabe ere, zergaren erregulazio ordenatuago, sistematikoago eta legezotasun printzipiora egokituago bat onartu zuela.

**Sortutako ondorioak eta
proposatutako helburuen eta
lortutako helburuen arteko lotura**

Arauren xedea zen zergaren erregulazio ordenatuago, sistematikoago eta legezotasun printzipiora egokituago bat onestea.

Erregulazio berriak behar bezala bete du proposatutako helburua, eta, beraz, bere balorazioa positiboa da.

del reglamento aprobado por el Decreto Foral 42/2012, de 22 de octubre.

Por tanto, y a modo de conclusión, cabe señalar que, sin incluir modificaciones sustanciales, a través de la presente norma foral se aprobó una regulación del impuesto mejor ordenada, sistemática y más acomodada al principio de legalidad.

**Efectos producidos y
correspondencia entre objetivos
propuestos y objetivos
alcanzados**

El objetivo de la norma era aprobar una regulación del impuesto mejor ordenada, sistemática y más acomodada al principio de legalidad.

La nueva regulación ha cumplido convenientemente con el objetivo propuesto, con lo que la valoración de la misma es positiva.



Araugintza garatzeko beharrak

Foru arau horrek garapen hauek izan ditu:

1/2023 Foru Dekretua, urtarrilaren 17koa, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamendua onesten duena

Erregelamenduzko garapen hau, funtsean, aurreko erregelamenduaren (urriaren 22ko 42/2012 Foru Dekretua) antzekoa da, 2/2022 Foru Arauan jasota ez dagoen zatian.

Era berean, gerorapenei eta zatikapenei dagokion erregulazio jasotzen da, lehen urtarrilaren 11ko 3/1990 Foru Arauan jasotakoa.

Laburbilduz

Foru Arau honek ez zuen inolako munta handiko aldaketarik sartzeko asmorik oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren araudian. Bere xedea zen zergaren erregulazio ordenatuago, sistematikoago eta legezkotasun printzipiora egokituago bat onestea.

Necesidades de desarrollo normativo

La referida norma foral ha tenido los siguientes desarrollos reglamentarios:

Decreto Foral 1/2023, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones

En lo sustancial este desarrollo reglamentario es similar al anterior reglamento (Decreto Foral 42/2012, de 22 de octubre), en aquella parte que no ha sido propiamente recogida en la Norma Foral 2/2022.

Así mismo, recoge la regulación relativa a los aplazamientos y fraccionamientos, anteriormente contenida en la Norma Foral 3/1990, de 11 de enero.

En resumen

Esta norma foral no pretendía introducir ningún tipo de modificación sustancial en la normativa del impuesto sobre sucesiones y donaciones. Su objetivo era aprobar una regulación del impuesto mejor ordenada, sistemática y más acomodada al principio de



Erregulazio berriak ordenamendu juridikoari zehaztasun handiagoa eman dio eta segurtasun juridikoa indartu du, bai zergadunarentzat zerga aitortzerakoan, bai Zerga Administrazioarentzat zerga kudeatzerakoan.

Azkenean, horrek guztiak, zerga sistemaren funtzionamendu hobea ekarriko du.

Beraz, aztertutako foru araua eraginkortasunez bete da, eta ez du inolako arazorik izan araua aplikatzean, eta ez du ezbehar berezirik izan, eta orain arte ez da judicializaziorik egin haren aplikazioan.

legalidad.

La nueva regulación ha dotado al ordenamiento jurídico de una mayor precisión normativa y ha potenciado la seguridad jurídica, tanto para las personas contribuyentes a la hora de declarar el impuesto, como para la Administración Tributaria a la hora de gestionarlo.

Al final, todo ello, repercutirá en un mejor funcionamiento del sistema tributario en general.

Por tanto, la norma foral analizada se ha puesto en cumplimiento de manera efectiva, sin ningún tipo de problemas en su aplicación, sin ningún contratiempo en especial, y hasta la fecha no se ha producido ningún caso de judicialización en su aplicación.